



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/28

Gernikako Arbolaren kimu batek susterrak botako ditu Sartagudan, "alargunen herrian", faxismoaren biktimen omenez

Nafarroako Sartaguda herriak oso egun berezia bizi izan dau gaur, indarkeria faxistaren biktimak gogoratzeko ekitaldiagaz. Sartagudako Udalak, Bizkaiko Batzar Nagusien laguntzeagaz antolatu dauen ekitaldian, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu da, gerraren ondorioa jasan eben pertsonen, batez be Gerra Zibilaren ostean estatu kolpea emon eban aldeak Nafarroan gauzatutako garbiketa politikoaren ondorioz desagertutakoen, omenez.

Sinbolismoz betetako ekitaldi batean, haretx gaztearen landaketak Ainhoa Aznárez eta Ana Otadui Nafarroako Legebiltzarreko eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentea alkartu ditu, eta baita Paolo Albanese Sartagudako alkatea be, eta ordezkari itzaz instituzional zabalaren babesa izan dabe: Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herritar eta Erakunde Harremanetako Sailburua, Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntz Politika Sailburua, Unai Hualde Nafarroako Legebiltzarreko Presidenteordea eta Oroimenerako "Pueblo de las viudas" Alkarteko ordezkariak, Bizkaiko Batzar Nagusietako taldeen ordezkariak ahaztu barik, horreen artean Jon Andoni Atutxa eta Josu Unanue EAJ-PNV eta EH Bildu taldeetako bozeroaleak.

Gerraren eta faxismoaren biktimei eskinitako omenaldiagaz bat egin dabe, baita be, fusilautako pertsonen senideek, Gernikako Udaletik eta bonbardaketak jasan ebezan beste herri batzuetatik, Durangotik eta Otxandiotik, besteak beste, etorritako ordezkariak eta, batez be, Sartagudako biztanleek. Bertaratuen artean Juan María Atutxa Eusko Legebiltzarreko Presidente ohia, Adolfo Araiz, Maialen Iriarte, edo José Ramón Anda eskultorea be egon dira, beste batzuen artean.

Nafarroan izan ziran 3.000 fusilau baino gehiagoren izenen aurrean, Bizkaiko Batzarretako presidentea, bere familiak lagunduta, bertaratutakoengana zuzendu da, Gernikaren, "37ko martiria izan zan foru herriaren", eta Sartagudaren artean paralelismoa ezarriz. "Nafarroako Oroimenaren Parke honek eta Gernikako Arbolak bakerako daukagun nahia, sarraskietan, gerra guztietan, indarkeria guztietan, orain laurogei urte eta gaur egun, Gernikan eta Sartagudan, Auschwitz eta Hiroshiman, Alepon eta Mediterraneo itsasoan, izan diran biktimei eskintzen deutsegun omenaldia sinbolizetan dabe", esan dau.

Gernikak jasan eban sarraskitik zortzi hamarkada igaro diranean, Otadui bere asmo bat gauzatzen hasiko dala iragarri dau, Gernikako arbolaren beste kimu batzuek "euren gerizpe beroa emon daien oroimen historikorako enblematikoak diran lekuetan". Gaur Nafarroako Erriberan hasi dogu suster horreek Auschwitz, Hiroshiman edo Vatikanon be zabaltzera eroango dauen ibilpidea", argitu dau.

Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenaren aurrekaria izan dan gaurko ekitaldia "faxismoak modu basatian zigortutako herri biren arteko zubia da" Sartagudako alkatearen berbetan. "Faxismoak herri horreetan idatzi ebazan izuz betetako agendaren lehenengo letrak", eta handik



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aurrera “gose, isiltasun eta errepresino” bilakatu zan, eta horren ostean “etenpuntuak” 40 urteko diktaduran, eta “amnesia eta kontinuismoa” Franco hil ostean.

Albanesek, “Euzko Gudarostean faxismoaren kontra burrukau ziran 1.500 nafar baino gehiago” gogoratu gura izan ditu. Horreen artetik, “berrehun gudari Sartagudako 84 biztanleak hil ebezan arrazoi berberengaitik hil ziran: eskubideak, askatasunak eta gizarte arloko justizia defendiduteagaitik”. Horreen guztien eta euren alargunen omenez, Auschwitz askatu zala-eta egin dan Holokaustoko Biktimen Mundu mailako Egunaren hurrengo egunean Gernikako Arbolaren kimu bat landatzea benetako “oparia”, eta “oroimenen artetik ederrena” dala esan dau.

“Alargunen herria” ezizenez ezaguna eta benetako herri martiria dan herrian (frankismoak Fronte Popularraren boto-emoileen %40 desagertuazo ebazan) kimu hori landatzeko ekitaldia Indarkeriaren Kontrako Eskolako Egunaren barruan sartzen da. Sartagudako Udalak, Bizkaiko Batzar Nagusien laguntzeagaz, jarduketa didaktikoak be antolatu ditu Nafarroako Erriberako herri horretako ikastetxeetan. Holan, joan dan egunean, Alberto Santana eta Iñaki Goigana historialariek, 37ko bonbardaketea dala-eta, Sartagudako eskola publikoetako eta Lodosa-Sartaguda ikastolako ikasleakaz topaketa bi izan ebezan, 10-12 urte arteko gazteakaz Gernikaren sinbolismoaren inguruko gogoetea egiteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
28/01/2017

Un retoño del Árbol de Gernika echa raíces en Sartaguda, "el pueblo de las viudas", en homenaje a las víctimas del fascismo

La localidad navarra de Sartaguda ha vivido hoy una jornada muy especial en recuerdo a las víctimas de la violencia fascista. En un acto organizado por su ayuntamiento, que ha contado con el apoyo de las Juntas Generales de Bizkaia, se ha plantado un retoño del Árbol de Gernika en homenaje a las personas que sufrieron las consecuencias de la guerra, especialmente a aquellas que desaparecieron víctimas de la limpieza política llevada a cabo por el bando golpista tras la Guerra Civil.

En un acto cargado de simbolismo, la plantación del joven roble ha reunido a las presidentas del parlamento navarro y de las Juntas Generales de Bizkaia, Ainhoa Aznárez y Ana Otadui, respectivamente, así como al alcalde de Sartaguda, Paolo Albanese. Los tres se han sentido arropados por una amplia representación institucional: Ana Olló, Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales del Gobierno de Navarra; Bingen Zupiria, consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco; Unai Hualde, Vicepresidente del parlamento navarro; Julio Sesma, representante de la asociación memorialista "Pueblo de las viudas"; y Jon Andoni Atutxa y Josu Unanue, portavoces de los grupos junteros vizcaínos de PNV y EH Bildu, respectivamente.

Al homenaje, primero en el Parque de la Memoria y después en el cementerio, donde se ha realizado una ofrenda floral, se han unido también familiares de personas fusiladas, delegados llegados del ayuntamiento de Gernika y de otros pueblos bombardeados como Durango y Otxandiano, y, sobre todo, vecinos y vecinas de Sartaguda. Entre los asistentes se encontraban también el expresidente del Parlamento Vasco, Juan María Atutxa, Adolfo Araiz, Maialen Iriarte, o el escultor José Ramón Anda, entre otros.

Delante de los nombres de los más de 3.000 fusilados en Navarra, la presidenta del Parlamento de Bizkaia, acompañada de su familia, se ha dirigido a los asistentes estableciendo un paralelismo entre Gernika, "la villa foral mártir del 37" y Sartaguda. El Parque de la Memoria de Navarra y el Árbol de Gernika "simbolizan nuestro común anhelo de paz, nuestro homenaje a las víctimas de las barbaries, de todas las guerras, de todas las violencias, hace ochenta años y ahora, en Gernika y en Sartaguda, en Auschwitz y en Hiroshima, en Alepo y en el Mediterráneo", ha dicho.

Ocho décadas después de la barbarie emprendida sobre la villa foral, Otadui ha anunciado el inicio de la materialización de un deseo propio de que otros retoños del árbol de Gernika "den su acogedora sombra en lugares emblemáticos para la memoria histórica". Hoy "empezamos en la Ribera Navarra un recorrido que permitirá que estas raíces crezcan también en Auschwitz, Hiroshima o en el Vaticano", ha revelado.

El acto de hoy, anticipo del 80 aniversario del bombardeo de la villa foral, sirve, según el alcalde de Sartaguda, de "puente entre dos pueblos castigados brutalmente por un fascismo que escribió en ellos las primeras anotaciones de una agenda de terror" y que se convirtió después



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“en hambre, silencio y represión” en los “puntos suspensivos” que fueron los 40 años de dictadura, y en “amnesia y continuismo” tras la muerte de Franco.

Albanese se ha acordado de “los más de 1.500 navarros que se enfrentaron al fascismo en el Ejército Vasco”, de los que “doscientos gudaris murieron por la misma causa por la que fueron asesinados los 84 vecinos de Sartaguda: por defender derechos, libertades y justicia social”. En homenaje a todos ellos y a sus viudas, ha considerado un “regalo” y el “más bonito de los recuerdos” la plantación de un retoño del Árbol de Gernika, un día después de conmemorarse el Día Mundial de las Víctimas del Holocausto, coincidiendo con el aniversario de la liberación de Auschwitz.

El acto de plantación del retoño en la localidad conocida como el “Pueblo de las Viudas”, localidad mártir por excelencia (el 40% de los votantes del Frente Popular fueron eliminados por el franquismo), se enmarca en el Día Escolar de la No Violencia. El Ayuntamiento de Sartaguda, con ayuda de las Juntas Generales de Bizkaia, ha organizado también actividades didácticas en los centros de enseñanza de este pueblo de la ribera navarra. En concreto, el pasado jueves, los historiadores Alberto Santana e Iñaki Goiogana tuvieron sendos encuentros con escolares de las escuelas públicas de Sartaguda y de la Ikastola de Lodosa-Sartaguda para reflexionar con estudiantes de 10-12 años del simbolismo de Gernika, tras el bombardeo del 37.